

Gure proiektua aurrera eramateko, hainbat ikuspegi hastu behar ditugu kontutan: ekoizpena, arazoak konpontzea eta plataforma zein sareko jardueretan jardutea.

Gure produktuak ez ditugu guk geuk produzitzen, guk produzituta irabaziak ez genituzke izango eta, enpresa ez da handia. Beraz, gure enpresako produktuak Euskal Herriko kontaktu bati erosten dizkiogu, produktuak egiteko prozedura eta produktuen osagaiak aztertu baititugu, eta hoberenak direla gure osasunarentzat ondorioztatu dugulako, baita ekonomikoak ere irabaziak ditugula bermatu ahal izateko. Ondoren, gure almazenera ekarriko ditugu produktuak kantitate handitan gero fisikoki zein online saltzeko. Terapien kasuan, sesioak ondo antolatuko ditugu gure idazkarien laguntzaz, erreserba guztien kontrola hartuz.

Gure aplikazioa kontrolatzen 2 pertsona arituko dira. Beraien eginkizuna, web horri hori ondo doala eta arazorik ez dagoela izango da. Bezeroren batek kexarik badu web horriari buruz, adibidez, bideo batek edo ariketa batek ez duela ondo funtzionatzen edo ez dela erabilgarria bi pertsona horiek hortaz arduratuko dira. Kasu horretan, 2 haiek terapeutekin hitz egiteko aukera izango dute eta terapeutek zer egin hobetzeko esango diete, horrela bideo edo ariketa berriz egingo lukete hobekuntzak gehituz eta berriz bezeroentzat eskuratu. Beste batetik, web horria berritzen ere joango dira, denboraren zehar gauza berriak ateratzen joaten bagara edo metodo berriak bilatzen baditugu gure produktuak komertzializatzeko ere web horri hartan jarriko dute dena.